

IRAGARKIA

Tolosako Udalean Euskararen Aholku Kontseilua osatzeko eta martxan jartzeko erregelamendua idatzi aurreko kontsulta publikoa bideratzeko

Aurrekariak

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala, eta berrikuntza batzuk sartu dizkio aurreko erregulazioari, helburu nagusi izanik herritarren parte-hartzea handitzea arauak prestatzeko prozeduran.

Hala, lege horren 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi proiektu bat prestatu aurretik, kontsulta publikoa egin behar da. Honela dio artikulua horrek:

«133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.

1. Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.

b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.

c) Arauaren helburuak.

d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak».

Oraingo honetan, Tolosako Udalaren asmoa da Euskararen Aholku Kontseilua osatzea eta martxan jartzea. Legeak ezarritako prozedura betetzeko, aldeztu aurreko kontsulta publikoa egingo du, erregelamendua onartu aurretik.

Hala, erregelamenduaren zirriborroa egin du Euskara Sailak eta ikusgai dago Tolosako Udalaren webgunean. Orain, herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritzi gero, parte hartu ahal izango dute eta ekarpenak egin, bi bide hauek erabilita:

- Helbide elektroniko honetara bidalia: euskara@tolosa.eus
- Udalaren Erregistroan aurkeztuta, aurrez aurre zein telematikoki (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa).

Horretarako, 15 lanegun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita,

Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak

Tamaina handiko lana da hizkuntza normalizazioarena, eta gauza jakina da Udalak berak bakarrik ezin diezaiokeela heldu horrelako lan bati. Hala, Kontseilu honen bidez, uztartu egin nahi dira Udalaren jarduna eta herri-dinamikak.

Erregelamendu hau onestea beharrezko eta egoki den

Tolosako Udalak aitortzen du hizkuntza eskubideak oinarritzekoak direla, eta, ondorioz, botere publikoek herritar guztiei bermatu beharrezkoak. Era berean, uste du gobernatze onak bete behar dituen printzipioetako bat dela herritarrek parte hartzea hizkuntza politiken sorreran eta proiektu eta programak planifikatzen eta ebaluatzen. Horretarako, ezinbestekoa da araudi bat lantzea.

Era berean kontuan hartzekoa da 2019ko azaroaren 19ko Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko dekretua, non 59. artikuluan bereziki aipatzen den Euskara Plangintza-tresnak eragile eta kolektibo inplikatuarekin hitzartuta

egin behar direla. Beti ere, parte-hartzearen, sinplifikazioaren eta efikaziaren printzipioak kontuan hartuta.

Erregelamenduaren helburua

Tresna egoki bat sortzea aurreko ataletan adierazitako beharrei erantzuteko. Hala, talde eta eragileek segurtasunaren eta berme juridikoaren aldetik duten beharrari erantzuten dio.

Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak

- 1.- Barne-instrukzioa edo jarraibidea: ez, hirugarrenen aurrean ez duelako eraginik sortzen.
- 2.- Erregulazio eza: ez, herritarren parte-hartzea modu eraginkorrean egin behar delako.

Tolosan, 2020ko azaroaren 16an
ALKATEA



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU35101c14-ecc3-475e-a707-c89f07d04d52**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=07110>**

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2020IORD0004-PROPOSAMENA/PROPOSAMENA